

# Pasahitzen sorreran eta erabileran segurtasunaz inkesta 2016: emaitzen laburpena

## 0.-Sarrera

2016ko Internet Seguruaren Eguna aitzakitzat hartuta EAEko lanbide heziketako ikasle eta irakasleei inkesta bat pasa zaie segurtasun digitalaz. Horrelako ekimena egiten den lehen aldi honetan pasahitzen inguruko kontuei buruz galdetu zaie.

Honekin batera sor zitezkeen gabeziei erantzuteko lau jarduera ezberdin diseinatu dira eta dagoeneko ETHAZI Biltegia blogean argitaratu dira.

## 1.-Parte hartzea

Inkesta 60 ikastetxetako IKT soporte (urtarrilaren 29an) eta IKT pedagogo arduradunei (arazo baten ondorioz otsailaren 2an) bidali zaie. Inkesta otsailaren 5ean, arratsaldean, itxi da eta guztira 1786 erantzun jaso dira.

### 1.1.-Irakasleak

Irakasleen 542 erantzun jaso dira, 31 ikastetxetakoak. Hala ere, horietatik 8tan 5 erantzun baino gutxiago jaso dira.

Parte hartu duten irakasleetatik %39 emakumeak ziren eta %61 gizonak

### 1.2.-Ikasleak

Ikasleen 1244 erantzun jaso dira, 22 ikastetxetakoak. Horietatik %33 emakumezkoak eta %67 gizonezkoak.

Mailari dagokionez %61 lehen mailakoak eta %39 bigarren mailakoak.


Adinari dagokionez %39 20 urte baino gutxiago, %50 20 eta 30 artean eta %11 30 urtetik gora.




## 2.-Emitzak

### 2.1.-Pasahitzak sortzea


Lehen galderan ea **hiztegiko hitzak erabiltzen dituzten** galdetzen da. Bakarrik hirutik batek erabiltzen ditu. Hiztegiko hitzak erabiltzea ez da halabarrez praktika txarra, baina hitz bakarra eta bestelako teknikekin konbinatu gabe egiten bada dudarik gabe oso praktika ez segurua da.




Bigarren galdera ea pasahitzetan maskota, familia, lagunak edo izenordeekin zerikusia duten hitzak erabiltzen dituzten galdetzen da. Ikus daiteke tankera honetako terminoak erabiltzen dituztenak asko direla, proportzio handiagoan irakasleen artean.



Pasahitzen luzera galderari erantzunak aztertuz ikusten da gehiengoak 8tik gorako luzerakoak erabiltzen dituela, hainbat sistemek eskatzen duten moduan. Hala ere, kezkatzekoa da 8 karaktere baino gutxiago erabiltzen duela irakasleen %14a eta ikasleen %9a. Ez da inoiz ahaztu behar orain irakasleen kasuan eta etorkizunean ikasleen kasuan, eskuratzen den informazioa babesteko betebeharra dagoela.




Pasahitzak sortzeko garaian zein motako osagarriak erabiltzen dituzten galdetu da eta parte hartzaileek taulan ikus daitezkeen lauen artean zeintzuk erabiltzen dituzten adierazi behar zuten. Ikus daitekeenez oso gutxi dira karaktere bereziak erabiltzen dituztenak, %10a ikasleen artean eta %7a irakasleen artean.




Baina beharbada esanguratsuagoa da aurrekoen artean pasahitzetan zenbat konbinatzen dituzten jakitea. Ondoko taulan ikus daiteke ikasleen %39ak eta irakasleen %27ak osagai bakarreko pasahitzak erabiltzen dituztela, kezagarria. Hiru edo gehiagokoak ikasleen %38ak eta irakasleen %34ak bakarrik erabiltzen dituzte.



Bi urratsetako egiaztapena zer den galdetzen denean, portzentaje handi batean ez dakite zer den ere, irakasleen kasuan %68a.




Pasahitz bera zerbitzu ezberdinetarako erabiltzen den galderari emandako erantzunak ikusita, ondoriozta daiteke oso arrunta dela pasahitz berbera erabiltzea zerbitzu ezberdinetarako, ikasle eta irakasleen %70 inguruk holako portaera dutela adierazi dutelarik.




## 2.2.-Pasahitzak zaintzea


Behin pasahitzak sortuta, bere segurtasuna denboran mantentzeko, garrantzitsua da aztertzea nola zaintzen diren. Honen inguruko lehen galdera ea pasahitzak norbaitekin partekatzen dituzten izan da eta lautik hiruk ez dute inorekin partekatzen. Horrek esan nahi du lautik batek gomendagarria ez den praktika hau egiten duela.



Pertsona batek erabiltzen duen pasahitz kopuruak gora egiten duenean, konplikatu da buruaz soilik fidatzea eta hutsune hori betetzeko daude pasahitzak kudeatzeko programak. Hala ere ez dira oso ezagunak, irakasleen % 62ak eta ikasleen %56ak ez dakite zer diren ere. Erabilpena oso eskasa dela ikus daiteke.




Hurrengo bi galderak gailuen babesarekin zerikusia dute. Lehenengoan gailu mugikorren blokeo sistemaz galdetu da (tabletak eta smartphonak barne), ea zein sistema erabiltzen duten. Ikusten denez kasu askotan telefonoa nonbaiten ahaztuta edo lapurtua informazio pribatua agerian gelditi liteke.




Aipatu behar da inkestetan errore bat izan zela eta lehen 333 sarreretan ez zela patroia aukera eskaintzen. Une horretatik aurrerako erantzunak bakarrik kontuan hartuta izandako erantzunak ondoko taulan ikus daitezke eta, aldaketak badaude ere, ikus daiteke lan handia dagoela egiteko, lehen bi blokeo sistemak ez seguruak direlako.

**Gailu mugikorren blokeoa 2**




Eta bigarren galdera ordenagailua atentziorik gabe uzten dutenean blokeatzen duten ala ez izan da. Ikus daiteke bakarrik erdiak baino gutxiagok blokeatzen duela beti, eta 5etik batek ez duela inoiz blokeatzen.

**Ordenagailua blokeatzen dut**



Batzuetan norberarena ez den ordenagailu batean aritzen gara. Kontuak irekitzen ditugu hainbat gauza egiteko. Galdera “zurea ez den edo partekatua den ordenagailu batean egon ondoren, nabigatzailea garbitzen al duzu”? izan da eta balizko erantzunen artean, baiezkoa eta ezezkoaz gain nabigazio anonimoa erabiltzen duen galdetzen zen. Ikus daitekeenez erdiak baino gehiago ezin du ziurtatu ez duela arrastorik utzi, %71 irakasleen kasuan.



### 3.-Balorazioa

Lehen eta behin esan behar da jaso den erantzun kopurua handia izan dela nahiz eta irregularra izan parte hartzea. Lortutako emaitzak irudi orokorra izateko nahikotzat jo daitezke ikastetxeetan irakasle zein ikasleekin lan egiteko, hala ere, inkesta norberak bere praktikei buruzko hausnarketa egiteko aitzakia izanik ikasle eta irakasle askoren kasuan, galdutako aukera bat izan da.

Jasotako erantzunek erakusten dute lan handia dagoela egiteko, bai ikasleekin, bai irakasleekin. Gaitasun hau ondo garatzea garrantzi handikoa da norberaren bizitzarako eta jardura profesionalerako. Kasu askotan LOPD errespetatu behar delako eta besteetan lan egiten den enpresako informazioa zaindu behar delako, bai ikasleek, bai irakasleek beren portaerak hobetu behar dituzte.

Inkestaren laburpen hau eskolan lan egiteko abiapuntua bilakatu behar da, hain zuzen ere hor bait dago bere balioa. Dagoeneko ETHAZI Biltegia blogean jardura proposamen bat dago gaitasun hau lantzeko.

Bestetik, Internet Seguruaren Eguna LHko 31 ikastetxetara era honetan zabaldu izana era baikorren baloratzeko kontua da.

### 4.-Hobekuntza proposamenak

Nahiko berandu ibili gara eta inkesta bidali aurretik ez da inolako komunikaziorik egon, bidea erraz zezakeena. Horrek parte hartzean eragina izan duela pentsa daiteke. Aurrera begira zuzentzeko kontua da.

